

CRISTINA GARAIZABAL

Cristina Garaizabal psikologo eta Hetaira kolektiboaren fundatzaileetarikoa batek aurkeztu zuen *Feminismoaren Mutazioak* mintegiko bere parte-hartzean zehar talde horrek 1995az geroztik sexuko langileen giza eskubideen defentsan egiten duen lana. Gainera, Cristina Garaizabal saiatu zen adierazten gai horrek ez diela sexuaren industrian lan egiten duten pertsonen eragiten, sexu-arrazoiengatik diskriminatzen diren gizon eta emakume guztien gauza dela baizik.



Hetaira funtsean emakume feministek osatzen duten taldea da eta 1995ean sortu zen sexuaren industrian lan egiten duten emakumeak eta beren jardura profesionala beste esparruetan garatzen duten emakumeak taldekatuko zituen aliantza bat sortzeko helburuarekin, horrela sexuaren langileengan erortzen den estigmaren aurka borrokatu ahal izateko. Taldeko kide gehienak mugimendu feministatik zetozen, asko hainbat asanbladetakoa Erasoen aurkako Batzordeen bitartez prostitutekin kontaktuan egon ziren eta prostituzioa emakumeek jasan zezaketen erasorik handienetarikoa bat bezala ikusten zuten. "Lehenengo aldi horretan pentsatzen genuen prostitutei beren errebindikazioetan laguntzeak gizarte patriarkalaren oinarriak eustea suposatzen zuela eta horrek eramaten gintuen "aurreko prostituziorik ez" lemapean babestea. Emakumeek askatzera eta salbatzera zetorren Kalkutako Teresa bezala ikusten gintuzten, nahiz eta ez zuten horretarako inolako beharrik. Beraiekin planteamendu horietatik loturan egotea ezinezkoa zen", adierazi zuen. Prostitutak ezagutu eta beraiekin hitz egitea esanguratsua izan zen Cristina Garaizabalentzat, baieztatu zuenaren arabera, prostituzioan jarduten diren emakume guztiak biktimak ez direna eta egoera utzi nahi ez dutena ikusten hasi baitziren. Egunero beraiekin lan egiteak prostituzioa bizitzeko eta horretan jarduteko hainbat modu zudela ikasteko aukera eman zien. Emakumeek prostituzioan jardutea erabakitzeke arrazoiak ere oso desberdinak dira; jarrera abolizionistak defendatzen dituztenek errealitate hori onartzea da Hetairaren borroka nagusia. Cristina Garaizabalek baieztatu zuen beharrezkoa dela lanbide horretan hirugarrenek behartuta laneko esklabutzako erregimenean jarduten direnen eta beren kabuz horrela bizi nahi duten emakumeen artean bereiztea. Bere iritziz, funtsezko gaia da ikustea nola lagun dakiekeen emakume horiei baldintza hobetan jardun daitezten, beren eskubideak aitortu daitezten eta beren erabakiak hartzeko esparrua zabaltzeko ahal izateko. "Ezinbestekoa da langileen ahotsarekin kontaktzea eragiten dien edozein praktika martxan jartzerakoan, beharrezkoa da beren ahotsak entzutea eta antolatzea beren lana garatzen duten baldintzak erabakitzen diren leku guztietan subjektu aktiboak izan daitezten", azaldu zuen.

Gai horiek eztabaida garratzak eragin dituzte mugimendu feministaren barruan, ikuspegi oso desberdinak daude eta bereizketak eragitera ere iritsi da. Cristina Garaizabalek baieztatu zuen Hetairak defendatutako jarrera dela prostituzioa erakunde patriarkala dela, ezkontza den bezala, eta bi erakundeek emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio sinbolikoa dutela, "baina gauza bat da prostituzioaren erakunde funtzio sinbolikoaz hitz egitea eta oso desberdina den beste bat horretatik ondorioztatzea hori desagerrarazi behar dela eta beharrezkoa dela prostituta guztiak birgizarteratzea, beraiek nahi ala ez. Historiak frogatu du berez gustatzen ez zaizkigun gizarteko fenomenoak deuseztatzea eta gustatuko litzaigukeenaren aukerak eragotzi nahi direnak baino kalte handiagoak eragiten dituenaren errealitatea kontuan izan gabe proposatzea ezinezkoa dela. Abolizionismoa momentu honetan kaltegarria da, Cristina Garaizabalen iritziz, eta aurrera eramaten ari diren estrategiek eragozten dute prostitutek dagozkien eskubideak lortzea.

Pertsonen duintasunak duten lanbidearen gainera egon behar du. Horregatik, sexuko langileek jasaten duten estigmaren aurka borrokatzea da Hetairaren helburu nagusietariko bat. Irudikari kolektiboak prostitutak ikusteko hiru modu biltzen ditu: a) Estatuak delinkuente bezala ikusten dituzte, prostitutak lapurretak, drogak eta beste hainbat gauza biltzen dituen maremagnum batean nahasten dira. "Estatuentzako ardura nagusia da kaleko prostituzioa ordena publikoko arazo ez bihurtzea, horregatik legeztatzen dute lokal txikietan, errentagarritasuna atera dakioketelako", baieztatzen du Cristina Garaizabalek. b) Eskuineko pentsamendu klasikoak prostituta pertsona bizioso edo gaixo batekin identifikatu du. Prostituzioa erabiltzen den pribilegio maskulino bat da, baina hobe da ez ikustea. c) Ezker tradizionalak prostituta gizarteko baldintzen eta gizonen makurkeriaren biktima gisa ikusten du. Pentsamendu korrante horrentzat ezinbestekoa da emakume horiek behar dituen eta komeni zaizkien gauzak ikustea eragozten dieten jardueratik salbatzea. "Abolizionismoak beti prostituzioa indarkeriarekin identifikatu du. Emakume batek ezin du bere borondatez horretan jardutea erabaki, beti derrigortzen duen proxeneta bat dago. Gainera, teoria horren defendatzaileek erabakitzen dute horretan nahi dutelako jarduten direla esaten duten emakumeak gezurretan aritzen direla eta zer nahi duten eta zer komeni zaien erabakitzeko gaitasuna izatea eragozten dien mundu horrek itsutzen dituela", azaldu zuen Cristina Garaizabalek. Feminismoak beti emakumearen objektuazioaren aurka borrokatu du, baina abolizionismoak prostitutei subjektibotasuna ukatzen die, gizonak erabili eta gozatzeko objektu animatu huts gisa ikusten ditu. Beren buruetaz hitz egiteko eskubidea eta gaitasuna ukatzen zaie eta gainera abolizionismoak Madril bezalako leku desberdinetan aurrera eramaten ari diren errepresiozko praktikak babesten ditu. Gobernuak berriki onartu duen generoko indarkeriaren aurkako lege integralak ez ditu prostitutek jasaten dituzten erasoak biltzen. "Prostituta bat asasinatuta hiltzea ez da generoko indarkeria, prostituzioa indarkeria delako eta hori praktikatzen duenak badakielako zertara arriskatzen den. Apaizek aborturako eskubidea ukatzen zutenean erabiltzen zuten estrategia bera da", baieztatu zuen Cristina Garaizabalek.

Gizarteak prostituzioa lan bat bezala ikustea Hetairak irekita daukan frontea da. Lagun duten estigma hori da gizarte patriarkala sostengatzen duten funtsezko oinarrietariko bat eta emakumeak zintzoak eta gaiztoak bezala bereizten ditu, beren sexualitateagatik epaitzen ditu. Gizarteak normal gisa definitzen duenetik aldentzen diren praktika sexualak dituztela adierazten duten emakume guztiak jasaten dute estigma hori. Prostituten kasuan beren bizitzako alderdi guztiak hartzen ditu, ezin dute ama onak izan edo beren soldatarekin mantentzen duten bikoterik eduki, gizarteak bikote hori berehala prostituzioan jardutera derrigortzen duen eta tratatu txarrak ematen dizkion proxeneta bezala identifikatu du. Ikuspegi hori legeak babesten du proxeneta *`hirugarrenen prostituzioaz aprobetxatzen den*

pertsona, nahiz eta horren baimenarekin izan” definitzen baitu, lege horrek prostitutei beren maitasun erlazioak libreki aukeratzeko eskubidea ukatzen die.

Hetairak eskatzen du prostituzioa laneko legeen barruan biltzea, lagun duen estigma desagerraraztea lortzeko lehenengo pauso gisa. “Laneko erlazioak gidatzen dituzten legeek emakume autonomoen alderdia eta klubetan jarduten diren langileen artean sortzen diren erlazioak ere bildu beharko lituzkete. Bigarren kasu horretan pentsatzen dugu patronalaren, klubetako jabeen pribilegioak murriztu beharko liriatekeela, langileak ordutegi jasanezinetan lan egitera derrigortzen baitituzte eta bezeroek eta egiten dituzten praktikak aukeratzeko ukatzen baitiete”, azaldu zuen Cristina Garaizabalek.

Beste proposamen bat da Amsterdam bezalako hirietan dauden *gune gorriak* sortzea, prostitutak jarduten diren auzo edo kaleetan sortu ohi diren gatazkak konpontzen lagunduko bailukete. Udalek edo auzokoek egindako presioak prostitutak kale edo gune jakinetan pilatzera derrigortu ditu eta horrek puntu horretan duten presentzia nabarmen handitzea eragin du, ondoriozko bizilagunen haserrearekin. “Beraiei ez zaie gatazkarik sortzea interesatzen eta uste dut gune seguruak eta baldintza onekin gaituko balira horietariko gehienek nahiago izango luketela han lan egin. Batzuk dauden lekuan gelditzeko aukera egingo lukete, baina kopurua askoz ere txikiagoa izango litzateke eta ez litzateke bizilagunentzat arazo bat izango”, dio Cristina Garaizabalek.



Bistakoa da gizartean prostitutak ikusteko moduan gerta daitezkeen aldaketak prostituzioa egiten duena definitu ezin duen lanbidea dela errebindikatetik pasatzen dela. Horregatik, Cristina Garaizabalen iritziz garrantzitsua da *sexuko langileak* terminoa ezagun egitea, prostituzioa lanbide gisa ulertzearen ideia gizartean sartzen laguntzen duelako, nahiz eta uste duen garrantzitsua dela *emagaldua* edo *prostituta* ez galtzea, iraultza elementu bat delako beharrezko egindako kategoria txarretaz jabetu eta izaera positiboa emanez itzultzea. “Niri *puta* bezala errebindikatzea gustatzen zait, emakumeen sexualitatearen muga patriarkalak gainditzen ditugunak bezala, bai eta *zitalak* bezala ere, hori baita esleitzen zaien beste adjektibo bat, uste dudalako gure sexuko interes eta zaletasunak kontuan hartzen ditugula eta ez gainerakoenak bakarrik”, amaitu zuen.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago.

Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

- [gaztekeraz](#)
- [ingelesez](#)